

Tratu txarrak: okerrena ikusteko gaude

BEGOÑA MURUAGA

ITZULTZAILEA

Orain dela egun batzuk izan genuen azken (?) hiletaren berri. Murtzian, gizon batek labana sartu zion bihotzean bikotekideari. Oso heriotza adierazgarria benetan. Ez dakit zenbat diren urte hasieratik hona gertaturikoak, baina urte odoltsua izango dugula susmatzen dut.

70eko hamarkadan hasi zen Mugimendu Feminista tratu txarrak salatzen, eta, ahal zuen moduan, horiei erantzuten. Orduan, normalizat jotzen zituen gizarteak tratu txarrak, senar-emazteen liskarren ondorio baitziren; gainera, jende askok uste zuen erasotzaileak gaixoak zirela. Garai hartan, ez zegoen inolako zerbitzurik emakumeei laguntzeko, ez eta estatistikarik edo datu zehatzik ere, eta Mugimendu Feministak egin behar izan zuen lan hori. Gauzak horrela, berehala konturatu zen erasoak ez zeudela lotuta, nahitaez, alko-holariekin edo gaixotasunarekin, gizon normalak zirela erasotzaileak; bestalde, bazi-rudien tratu txar gehienetan atzean mende-kotasun ekonomikoa zegoela. Beraz, emakumeen independentzia ekonomikoa bultzatu behar zen, tratu txarrak desagerrarazteko. Gaur, 30 urte beranduago, arazoaren konplexutasunak erakusten digu ez dagoela konponbide errazik.

Esku artean ditugun datuek zera erakusten digute: erasotzaileen %80 ez direla gaixoak; tratu txarrak ez direla gertatzen emakumeek mende-kotasun ekonomikoa duten bikoteetan bakarrik (nahiz eta, oraindik ere, halakoak izan gehiengoak); 7 urte jasaten dituzela emakumeek tratu txarrak, batez beste, salaketa jarri aurretik; tratu txar fisikoan aurretik tratu txar psikologikoak gertatzen direla; hildako hamar emakumetarik zazpi banatzeko bidean zeudela, eta tratu txarren %70 bikotearen lehenengo urtean hasten direla.

Azkenaldi honetan —eta Mugimendu Feministari esker, hein handi batean—, zenbait baliabide jarri dira emakumeen eskura: informazioa emateko eta salaketa jartzeko zerbitzuak, laguntza psikologikoa eskaintzen dutenak, prestatuntza-ikastaroak, eta abar. Bestalde, *Genero-indarkeriaren aurkako lege organikoa* jarri zen indarrean joan den hilean, eta denetarik neurriak jasotzen dira lege horretan: heziketa arlokoak, babes judiziala eskaintzen dutenak, hedabideei eta publikitateari buruzkoak, laguntza ekonomikoa ematen dutenak... Garbi dago gaur egungo egoera formalak ez duela zerikusirik orain dela 30 urtekoarekin. Baina, hala ere, hor jarraitzen dute erasoak, eta badirudi areagotu egin direla. Zerbait huts egin duen seinala.

Egia da beti gertatu izan direla erasoak gure gizartean, baina, nire ustez, gehituz doaz kopuruz, eta gero eta bortitzagoak

dira; beharbada, lehen baino emakume gehiago erabakitzen duelako erasotzaile uztea, baina, orobat, gero eta indarkeria handiagoa bizi dugulako gizartean. Gainera, emakumeak objektu sexual gisa erabilteza gero eta zabaldago dago hedabideetan. Emakumeen askatasun-egariari gizonen jarrera bortitza eta emakumeak subjektu gisa tratatzeko zailtasuna gehitzen badizkiogu, horrek guztiak halako koktel moduko bat osatzen du, eta, noski, eztanda egiten du.

Eta, zer gertatzen da emakumeekin? Zergatik jasaten dituzte 7 urte, guxtienez, tratu txarrak? Zergatik bueltatzen dira batzuk senararekin, salaketa jarri ondoren? Zergatik hausten dute berek eskatutako urrutze-agindua? Egunen batean hitz egin beharko da bikoteen arteko menpekotasun-harreman horietaz, gizonetzkoie erru guztia bota gabe. Egunen batean aztertu beharko da sakonki emakumeen maitatzeko era.

Arazoa, zoritzarrez, ez da belaunaldi baten kontua, oraindik ere neska gazte asko baitago maitasunaren izenean edozer egiteko prest. Are gehiago, susmoa dut berdintasunaren ideia okerra ari dela zabaltzen zenbaiten artean. Egia da neskek mutilak bezalakoak izateko eskubide osoa dutela, baina garbi esan behar da eredu maskulinoareta bete-betean imitatzea ez dela berdintasunerako bide bakarra, ez eta hobetena ere. Berdintasuna gizonak eta emakumeak eskubide eta betebeharrak berdintzat hartzea da

eta, horrek ez du esan nahi denok berdintzatu behar dugunik, ezta guxtiagorik ere.

Azken urte hauetan hiletetek goraka egin dute, eta horri egin behar zaio aurre lehen-bailehen. Horretarako, lehenengo eta behin, babes osoa eman behar zaie erasoak salatzen dituzten emakumei, babesa eta laguntza, eta, gero, zorrotz bete urrutze-agindua (haien ondorioz gertatzen baitira askotan hiletak), baina bi alderdiek bete beharko dituzte agindu horiek. Adibidez, joan den hilean ikusi genuen nola epaile batek debekatu zion emakume bati erasotzaile bisitatzea (kartzelan zegoen), bai eta harekin ezkontzea ere, urrutze-agindua zuelako. Horrelako neurriak beharrezkoak dira, nire ustez. Emakumeek legearen babesa eduki behar dute beti, nahiz eta une jakin batean «orain ez» esan.

Horrekin, ordea, arazoaren ehuneko txiki bat baino ez dugu konponduko, zeren eta tratu txarrekin, oro har, konponbide zaila baitute. Ondo daude kanpainak, eta beharrezkoak dira legeak eta era guztietako laguntzak, baina ezar gutxi balioko dute egunero zabaltzen diren mezuak beste bide batetik badoaz, eta horixe gertatzen da, hein handi batean, bai telebistan, bai bideo-jokoetan. Bestalde, gero eta ugariagoak dira Interneten bidez zabaltzen ari diren txantxa matxistak eta jarrera sexistak. Horren guztia-aren aurka gizararearen zati handi batek egiten ez duen bitartean, uste dut okerrena ikusteko gaudela.

Hiletarientzako mezua

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,
"TXILLARDEGI"
IDAZLEA

Tentazioan erori nintzen Durango Azokakoan. Eta Eusko Ikaskuntzak argitaratu berri dituen hiru liburukote mardulak erosi ni-tuen. Miarritzen (1948) eta Baionan (1954) burututako bi Kongresuen berri zehatza ematen dute (foto bikainak barne), baita kostata berreskuratutako txosten barmitsu mordo bat ere.

Jean Claude Larronde kondairalaririk egin duen lan eskerga, benetan da txalagarria. Eta nik neuk neure zorionak eta eskerrak bidali nahi dizkiok lerro hauetarik.

Frankismoaren lehenengo bi hamarkadetan euskaltzaletasunak egoera gogorari nola egin zion aurre kontuaz, oso gutxi dakigu. Urte ilunak dira.

Lehenengo hamarkadan, 1936-1945, hemengo eta hango gerratean garaian, hiletaren, deserriraketaren, gartzelaketaren eta zanpaketa mota guztien jopu izan ziren abertzaleak; eta euskaltzale hutsak berak ere, maila bertsuan zafratu zituzten.

Bigarrenean, berriaz, 1945ren ondoko zortzi-hamar urteetan, Iparraldeko bihurtu zen eskual mugimendua atzerpe: bai politikarenean (hein batez bederen); eta bai euskararenean. Eta, hori dela bide, 1948

eta 1954ko bi Kongresuak, esaten ari garenaren froga gailen agertzen dira.

Mende erdi bat igaro da geroztik. Eta hiru liburukote azterketa gogoeta iturri oparo bihurtu daiteke aisa.

Orain, dokumentu mordo hori oinarri, euskal kultura zertan zegoen ikus daitekeelako. Eta, ondorioz, aurrera egin ote dugun, ala ez, burubidez neurtu.

Gazte askok, eta atzera begiratu nahi izaten ez duten heldu antzeko ere, lasai asko jaurtitzen digute: «Gaizki goaz. Behera goaz, putzura goaz. Euskararen egoera, bereziki, askoz hobea zen gure gurasoen, edo gure aitona-amonen denboretan, orain baino».

Hots, hori ez da egia.

Eusko Ikaskuntzaren hiru liburuki horiek irakurruta, ezkorrenek berek ere nekez defendezake horrelakorik.

Dato objektibo batzuk eskainiko ditut.

1948ko Kongresuan, 260 txosten aurkeztu omen ziren. Jose Migel Barandiaran apaiza gailentzen da sustatzaile nagusi.

Baina gero hil diren euskaltzale mordo bat topatzen dugu lanean: Aita J. Thalamas irundarra (*Gernika* aldizkariaren zuzendaria), Aita Pierre Lafitte (gramatikari eta euskaltzainia), Ermandorena (bertsolaritzaren bultzatzailea), Marc Légasse (anarko abertzalea), Manu Sota (*jagi-jagi*-tarra eta hizte-gigilea), Doroteo Ziaurritz (Alderdikoko burukidea), Telesforo Monzon (Mexikotik erroiri berria), Sebero Altube (gernikar euskalari

zorrotza), Louis Dassance (uztariztarra, Gure Herria-ren zuzendaria), Jon Bilbao (bibliografoa).

Bat edo beste bizirik daukagu oraino gure artean: Piarres Xarriton euskaltzainia (apeaiz orduan), Filipe Oihanburu (anarko-abertzale, eta euskal balletaren aintzindaria), eta abar.

Galeria bikaina. Baina goazen harira. Edo-ta, zehazkiago, goazen gu *euskararen erabileraren* alorrera. Zer mailatan erabili zen euskara Miarritzeko Kongresuan? Txostenen beren kopurua neurtzen badugu, %1,89 aurkitzen dugu; eta txostenen orri-kopurua hartzen badugu kontuan, %0,4.

Miarritzen bi batzarkidek aurkeztu zituzten euskaraz beren lanak: Zeferino Xemein abantotat sabindiar famatua (*Eusko ala euzko?*, 4 orrialde; «euzko» grafiaren aldeko kokatuz). Eta Oxibar *Kaiet* zuberotarrak (*Uchkaidunak bazter orotan* izkirburak, orrialde bat; /i/ soinua, frantsesez bezala «i» idazten zuelarik).

Azkiek berak, Barandiaranek, Ametzagak, Lopez Mendizabalek, Jose Antonio Agirrek, espainieraz; eta Etxeberri-Ainxartek, Lafittek, Caro Barojak, Oihanburuk, frantsesez.

Hitz batez: %99,60 erdaraz.

Euskararen corpus-ari buruz artikulua bakar bat: Oihanburu-rena, sabindiarren garbizelekeriaren aurka. Sei urte joan, eta Baionan 1954an, zertan ginen?

«Congreso de la penuria» izan zela esan ondoren, 181 txosten aipatzen ditu Larrondek (orainoz heren bat berreskuraturik).

Euskararen erabileraz, zer berri?

Txostenen arabera, %3,2 euskaraz; eta txostenen orrialde kopuruaren arabera, %1,92.

Alegia, %98,08 erdaraz. Pittin bat aurrera: %1,52.

Euskaraz bi txosten. Bata Andima Ibiñagabeitia-rena (Elantxobe-tarra, euskal itzulpenlantzari buruz, 10 orrialde); eta bestea, Jon Balderidien (6 orrialde, Abaltzisketako artzaintzaz).

Txostengileen artean Roger Etxegarai ezpeletarra aurkitzen dugu (gaurko kardinal famatua), R. Lafon, H. Gavel, Etxeberri-Ainxart, Manuel kallonja, Mathieu hazpandarra, Manuél Irujo lizarra diputatua, Leizola lehendakaria, frantsesez. Tejada, Manuel Irujo, Antonio Arza, Andres Irujo *Ekin* argitaratzailekoa, Estornes Lasa, espainieraz.

Denok gara geure garaiko seme-alaba. Zalantzarik ez.

Bi Kongresu horietan, nola-hala, euskal zuziari eutsi ziotenek, gure eskertza-gorazarrikeri biziokorrena merezi dute. Bihoa hau aurretik.

Baina gure herriak, *hizkuntzaren alorrean* ere, aurrera egin du harrigarri.

Artikulu-gaien azterketak antzeko ondoriota eramango gintuzke. Nahiz hiru bilduma horietan bildu diren ikerlan batzuek gaur ere beren balio osoa izan.

Euskaltzale guztien izenean, mila esker antz Eusko Ikaskuntzari.